

2014ko UZTAILAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **11 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko uztailaren 30ean, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
Bertaratutako zinegotziak	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. M ^a Jose Lafuente Grasa and.
Ez da etorri	Irma Domingorena Zapirain and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villfranca ARzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2014ko ekainaren 18koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko ekainaren 16tik uztailaren 24ra

Segidan, Alkatetzak 2014ko ekainaren 16tik uztailaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko ekainaren 13tik uztailaren 18ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko ekainaren 13tik uztailaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA: 2014ko 2. HIRUHILEKOA

Segidan, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2014ko bigarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

4., 2013ko KONTU OROKORRA

2014ko ekainaren 11n egindako bileran, Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman zion 2013. ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorrari.

Kontu orokorra jendaurrean egon zen, 15 eguneko epean, 2013ko ekainaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (115 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez; eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, aipatutako Kontuen Batzorde Bereziak hala proposatuta Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Zarauzko Udalaren 2013. urteko Kontu Orokorra onartzea eta, halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea.

5.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKAL, ERAIKIN ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA

Kontratuaren gaia ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA esleitzea da, Administrazio-Klausula Zehatzen eta Teknikoen agiriak zehaztutako baldintzekin bat etorritz.

Esleitu beharreko kontratuaren gehienezko lizitazio-tipoa urteko 1.147.384,50 eurokoa izango da, BEZ barne (948.251,65 euro + 199.132,85 euro BEZ). Ordu arruntaren prezioa gehienez 25,00 eurokoa izango da, BEZ barne (20,66 euro + 4,34 euro BEZ), eta jaiegun edo/eta gaueko orduena, berriz, gehienez 27,50 eurokoa, BEZ barne (22,73 euro + 4,77 euro BEZ).

Kontratuak 2 urteko iraupena izango du, gauzatzen denetik kontatzen hasita. Hala ere, bi aldeek horrela adierazi eta adosten badute, kontratua luzatu ahal izango da; kasu horretan iraupen osoa, luzapenak eta guzti, gehienez ere 4 urtekoa izango da.

Ikusita bai administrazio-klausula zehatzen agiriak eta baldintza teknikoak, bai eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ere, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA kontratatzeke administrazio-klausula zehatzen eta teknikoaren agiriak onartzea.

Bigarrena.- Kontratua esleitzeko prozedura irekiaren deialdia egitea.

- Urteko lizitazio-tipoa gehienez: 1.147.384,50 €, BEZ barne (948.251,65 € + 199.132,85 € BEZ).
- Ordu arruntaren prezioa gehienez: 25, €, BEZ barne (20,66 € +4,34 € BEZ).
- Jaiegun edo/eta gaueko orduen prezioa gehienez: 27,50 €, BEZ barne (22,73 € +4,77 € BEZ).

Hirugarrena.- Kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko dagokion aurrekontuan behar beste kreditu edukitzearen baldintzapean geratzeko da kontratu honen benetako esleipena, Sektore Publikoko Kontratuen Legaren Testu Bateginak 110-2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, aurrekontuetan eskumena duen organoak konpromisoa hartu du hurrengo ekitaldietan eraginda izango diren aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrari ematea ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua esleitzeko eskuordetza, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.- Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Europako Erkidegoko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profileen argitaratzea.

6.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) EAJ-PNV taldeak: Puntu.eus domeinua

Ondoren, EAJ-PNV taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

“PUNTU.EUS DOMEINUA

ZIOA

Gizarteratu da, dagoeneko, puntu.eus domeinua.

Euskararen normalizaziorako inguruan ditugun baliabide eta tresna guztiak baliatu behar ditugula uste dugulako, puntu.eus domeinua gizarteratzen laguntzea ere bada herri-erakundeen eginbeharra.

Bestetik, euskaldunon komunitatea trinkotzea ezinbesteko pausua da hizkuntzaren erabilera areagotzeko. Azken inkesten arabera, euskaldun kopuru altuena hiri handietan dago eta horrek zailtasun handiagoak sortzen ditu euskaldunen arteko harremanak sendotzeko garaian, populazioa handiagoa delako eta sakabanaketa ere handiagoa izan daitekeelako.

Hori horrela, puntu.eus domeinuak lagunduko du, zalantzarik gabe, bai komunitate birtuala, baita erreala ere, elkartzen, are gehiago, sare sozial deritzotenak hartu duten indarra ikusita.

Horregatik, norbanakoen lanaz gain, erakunde publiko eta pribatuek ere beren aletxoak jarri behar dutela uste dugu.

Prozesu horren abiarazte-aldia datoren irailaren 16tik azaroaren 18ra izango da. Denbora tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an aktibatuko dira, Euskararen Nazioarteko Egunean, hain zuzen.

MOZIOA

Horregatik guztiagatik, Zarauzko udala izanik zarauztar guztien gertueneko administrazioa, honako hau eskatzen diogu Udal Gobernuari.

1.- Udalaren domeinuak, .eus domeinu bezala erregistratu, aktibatu eta ikusgarri izateko urrats guztiak eman ditzala, hartara, Euskararen Egunerako aktibatuta egon daitezen.

2.- Herriko norbanako, elkarte, talde, eragile zein enpresak ere anima ditzala .eus domeinura bihur ditzaten beren domeinuak.”

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

b) Palestinari buruzko mozioak

– EAJ-PNV taldeak: Palestina

– Bildu eta Aralar-Ezker Anitza taldeek: Bildu eta Aralar-Ezker Anitza taldeek: Israel palestinarren aurka egiten ari den sarraskia salatzeke, apartheid politika amaitzen ez den bitartean Israeli boikota aldarrikatzeko eta Gazara diru-laguntza bidaltzeko mozioa

Udal talde aurkezle bakoitzeak atzera egin eta aurkeztutako mozioa kendu du gai-zerrendatik. Ondoren, hasierako haien orde, beste hau aurkeztu dute:

BILDU, EAJ-PNV, PSE-EE ETA ARALAR-EZKER ANITZA UDAL TALDEEK ADOSTUTAKO MOZIOA

Horrenbestez, mozio hau irakurri du idazkariak:

“ZARAUZKO UDALAK ISRAEL PALESTINARREN AURKA EGITEN ARI DEN SARRASKIA SALATZEKO ETA GAZARA DIRU LAGUNTZA BIDALTZEKO MOZIOA

Azken asteotan, hiru gazte israeldarren desagerpena eta heriotza aitzakiatzat hartuta, palestinari biztanleriaren aurkako zigor kolektiboa ari da burutzen estatu sionista, biztanleria zibilaren aurkako bonbardaketekin, haurrak zein agureak barruan direla jakinda ere etxeak bonbardatuz, eta nazioarteko erakundeek ebazpen eta legeria guztiak urratuz. Horregatik, sarraskiarekin gelditzeko berehalako deia egiten dio Zarauzko Udalak Israelgo estatuari.

Ildo horretan, Nazio Batuen Erakundearen ebazpenetan oinarriturik, gatazka elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzeko beharra berresten dugu, baita Giza Eskubideen errespetu osoa ere kasu guztietan. Beste behin ere, nazioarteko erakunde nagusiek eman duten erantzun ahularen aurrean, Zarauzko Udalak honako hau erabaki du:

1. Gazako zerrendaren aurkako sarraskia eta blokeoa gaitzestea, eta berehala eta betiko amai dadin eskatzea.
2. Herri palestinarrari elkartasuna adieraztea, eta Israego estatuari eskatzea lurralde okupatuetatik irteteko eta Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak betetzeko.
3. Herrien Elkartasunerako eta Garapenerako diru-partidan larrialdi kasuetarako gorde ohi den kopurutik 3.000 euro bideratzea UNRWarentzat. Nazio Batuen Erakundeak errefuxiatu palestinarren oinarrizko giza eskubideak berma daitezen sortutako erakundea da UNRWA, eta azken asteotan, Gazako biztanleria zibilaren aurka Israel egiten ari den sarraskiaren ondotik, eskolak, ospitaleak eta ahal izan dituen eraikinak prestatu ditu populazio zibila babesteko eta eraikin horiek oinarrizko beharretarako hornitzeko. Israelen eguneroko bonbardaketek, ordea, UNRWaren ahalegin guztia kolokan utzi dute, eta nazioarteko erakundeak larritasunezko laguntza eskaera egin behar izan du, dirua zein oinarrizko elikagaiak eta produktuak eskatzeko. Zarauzko Udalak deialdi horrekin bat egin eta erabaki du 3.000 euro bideratzea UNRWak Gazako zerrendan dituen beharretarako.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatzea, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartekaritza erabilita, Israelgo erakundeei jakinarazteko honako erabakia. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hori izan dadila Israelekin duen harreman diplomatiko bakarra, harik eta herri palestinarraren eskubideak errespetatzen ez dituen arte.
5. Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta Europako erakundeei eskatzea beharrezkoak diren neurri diplomatikoak hartu ditzatela, Palestinaren aurkako erasoak geldiarazteko.
6. Zarauzko Udalak akordio honen berri emango die hedabideei.”

Udalbatzarrak, aho batez, transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK AT

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA, eta Udalbatzarrak aho batez presazkotzat hartu ondoren, gai hau aztertu dute:

– BILDU udal taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako URGENTZIAZKO MOZIOA:

– Urgentziako mozioa: 35/02 auziko sententziaren inguruan, zigortutako euskal herritarrei eta kultur elkarteei, bereziki zarauztarrei, babesa adieraziz eta sententzia bertan behera gera dadin eskatuz

Ondoren, BILDU taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamen hau irakurri dute. Honela dio:

“Hogei lagun zigortu ditu gaur frankismoaren oinordekoa den Auzitegi Nazionalak. 35/02 edo Herriko Tabernen auzia bezala ezaguna izan den hau, besteak beste, hainbat zarauztarrentzat ere amesgaiztoa izan da 2002 urteaz geroztik. Joseba Permach, Esther Agirre eta Arrano Kabia Kultur Elkartea akusatuen aulkian, eta epaiketarik eta sententziarik gabe ere Joseba Permach bi urte eta erdiz behin-behinean espetxean. Akusazioa: herriko tabernen bidez ETA finantzatzea.

2013ko azaroan ekin zitzaion epaiketari. Bost hilabete luzatu zen bista. Hamabi urteko ibilbide luzea darama 353/02 auziak. 85.000 folio eta ehunka mila agiri eta eranskin pilatuta aurkeztu dituzte Espainiako poliziek eta indar armatuek, hasierako 41 auzipetuei eta amaierako 32ei akusazio larrien zama zintzilikatu nahian: ETako kideak izatea, ETA diruz hornitzea, garbiketa etnikoan aritzea, Espainiako ekonomia larriki txirotzea, eta antzekoak. Zigor eskaerak ere ez nolana hikoak: zortzi, hamar eta hamabi urterainoko kartzela zigorrak auzipetuentzat, ehun eta hamarretik gora herriko taberna eta herri elkarteren desjabetzea eta abar.

Azkenean, beste garai batekoa zirudien eta gaindituta behar zuen estrategia gailendu da oraingoan ere Madrilén: batzuentzat dena da ETA.

Herriko tabernak eta elkarteak, kasu askotan, mugimendu politiko baten bilgune izateaz gain, herriko hainbat elkarte, eragile eta jardueren eremuak ere badira. Zarauzkoaren kasuan, beste hainbat elkarteren antzera, ekarpen handia egin dio herri honen jarduera kulturalari.

Auzipetuak eta zigortuak izan diren euskal herritarrak, berriz, eragile aktiboak eta garrantzitsuak izan dira gaur egun herri honek bizi duen abagune politikora iristeko.

Gaur ezagutarazi den sententzia, beraz, elkarrizketaren eta politikaren bidez bidea urratu ezin duenaren ezintasunetik abiatutako epe motzeko politika itsu eta traketsa besterik ez da, bake eta konponbide garaiari inolako ekarpenik egiten ez diona, eta iraganeko eskemak elikatzeaz gain menduku hutsean oinarritzen dena, eta ez estatu demokratiko batean ohikoa beharko lukeen zuzenbidean.

Honegatik guztiagatik, Zarauzko Udalak, urgentziaz, honakoa adierazi nahi du mozio honen bidez:

1.- Zarauzko Udalak bere elkartasuna eta babesa adierazten dio auzi honetan akusatuak izan diren Joseba Permachi, Esther Agirrerri eta Arrano Kabia Kultur Elkarteko bazkide, ordezkari eta langile guztiei.

2.- Zarauzko Udalak ez du ulertzen sententzia hau justizia edo zuzenbide eremuaren baitan, salbuespeneko mendeku politikak bideratzeko zabalik irauten duen Auzitegi Nazionalaren ohiko jardunean baizik. Beraz, sententzia ez du bidezkotzat jotzen, eta bertan behera gera dadin eskatzen du, Auzientzia Nazionalak aspaldi galdu zuelako benetako justizia eta zuzenbidean euskal herritarrak epaitzeko zilegitasun guztia.

3.- Zarauzko Udalak dei egiten die herritarrei sententzia hau salatzeo herrian antolatzen diren mobilizazioekin bat egin dezaten.

4.- Zarauzko Udalak dei egiten die Euskal Herriko eragile ezberdinei, Espainia zein Frantziako estatuetako gobernuetara eta nazioarteko komunitateari, Euskal Herrian abian den konponbide prozesuan urratsak eman ditzaten.

5.- Zarauzko Udalak hedabideei emango die erabaki hauen berri.”

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

Halaber, EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA eta bilkuran dauden zinegotzien gehiengoak presazkotzat hartu ondoren, ondoko gaia aztertu dute:

– EAJ-PNV, PSE-EE eta PP udal taldeek eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako MOZIOA

Segidan, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP udal taldeek eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako mozioa irakurri du idazkariak. Hona hemen testua:

“Zarauzko Bilduko zinegotzi batek malekoian bizikleta gainean zihola jarrera desegokia izan zuela herrian bolo-bolo zebilenez, alkatearengana jo genuen uztailaren 17an, 7994 zenbakiaz erregistratutako eskaeraren bitartez.

Eskaerak honela zioen:

“gardentasuna eta informazioaren izenean, udaltzainak honen inguruan egindako txostena udal talde guztien eskuetan lehenbailehen jar dezala”

Gaur arte alkatearen inongo erantzunik, ez idatziz eta ez ahoz, izan ez dugunez eta Gari Berasaluze Kultura eta Euskara zinegotziak bere alde bateko bertsioa eman zigunez batzordean, geratu zena guztiz argitzeko asmoz, udaltzainen txostena beharrezkotzat jotzen dugu.

Aipatutako guztiarengatik, EAJ-PNV, PSE-EE, Ezker Anitza eta PPko zinegotziok honako MOZIOA aurkezten dugu, Zarauzko Osoko Bilkurak onar dezan:

1.- Gardentasunaren eta informazioaren izenean, ekainaren 24an udaltzain baten eta Gari Berasaluzeren artean malekoian gertatutakoari buruzko udaltzainen txostena udal talde guztien eskuetan jarriko du alkateak, gehienez ere astebeteko epean.”

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak laurden gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.